

Laudion, 2024ko ekainaren 13an

Udalak Aretako Batzarrean jakinarazi du harremanetan ari dela gasolindegia sustatzen duen enpresarekin

Gainera, eta Laudioko hirigintza-legeria eguneratzeko beharra ikusita, gasolindegia jartzeko Plan Berezia idatziko dela iragarri zen

Laudioko Udalak Gasteiz kalean hasitako gasolindegi-proiektuaren egoeraren berri eman zuen atzo Aretako auzo batzarrean. Alde guztientzako emaitza ona bilatze aldera, Udala harremanetan jarri da proiektua sustatu duen enpresarekin, eta enpresa prest agertu da beste irtenbide batzuk aztertzeko.

Bileran Aretako herritarrek aurkeztutako alegazio ugarien egoeraren berri ere eman zuen Udalak. Alegazio horien helburua proiektua geldiaraztea bazen ere, eta horietako askok proiektuan eragina sortzeko ahalmena badute ere, ez dute behar besteko indarrik proiektuaren garapena eragozteko. Eusko Jaurlaritzak proiektuari begira hartu beharreko neurri zuzentzaileak erabakitzean, herritarrek alegazioen azken ebazpenaren berri izango dute.

Edozein kasutan, Aretan sortu berri den egoerak agerian utzi du Laudioko hirigintza-legeria egokitu beharra dagoela, horrelako egoerak berriro gerta ez daitezela. Horretarako, Udalak jakinarazi zuen ibilgailu motordunentzako hornidura-

instalazioak ezartzeko Plan Berezi bat idazten hasteko asmoa duela. Modu horretan neurri zuzentzaileak aplikatu ahal izango dira HAPOren izapidetzea amaitu baino lehen, une honetan eguneratzen ari baita.